



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaria

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

INGURUMEN JASANGARRITASUNEKO
SAILBURUORDETZA

EBAZPENA, 2021KO MAIATZAREN 3EKOA, INGURUMENAREN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIARENA, ONDARROAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENARI BURUZKO DOKUMENTUA FORMULATZEN DUENA.

AURREKARIAK

2021eko otsailaren 12an, Ondarroako Udalak eskabidea egin zuen garai hartako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren aurrean, Ondarroako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zedin, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi ziren, tartean, planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta Planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Ondarroako Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dionaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergiakoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie administrazio publiko batek hartzen edo onartzen dituen plan eta programei, bai eta horien aldaketei ere —eta beti ere horiek egitea eta onartzea legez edo erregelamenduz ezarritako xedapen batek eskatzen badu—, baldin eta plan eta proiektu horiek esparrua ezartzen badute etorkizunean baimena emateko legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuei.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskinen A) apartatuan jasotako planei

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



lotuta, eta Ondarroako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra dago plan horien artean.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1. artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- – Ondarroako Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko (hemendik aurrera HAPO) ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua egitea, ingurumen-xedeetarako soilik, honela:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena.

Ondarroan indarrean dagoen hirigintza-plangintza arau subsidiarioek osatzen dute. Arau horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren 1996ko martxoaren 15eko 136/1996 Foru Aginduaren bidez onartu ziren behin betiko, eta euren hirigintza-araudia 1997ko abuztuaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu zen, bai eta gerora izapidetu diren aldaketak ere.

HAPOren helburua da gaur egun indarrean dagoen Ondarroako udal hirigintza-plangintza berrikustea, udalerrian hautematen diren behar eta eskaeretara egokitzeko, ekipamenduei, espazio libreei, bizitegi-lurzoruei, jarduera ekonomikoetarako lurzoruei eta indarrean dagoen hirigintza-legerian sartutako aldaketei dagokienez. Horretarako, antolamendu-proposamenak egingo dira, Ondarroako herritarren egungo beharrak asetzeko gai direnak, baina etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Hasierako dokumentu estrategikoak HAPO berria garatzeko hirigintza-esparrua deskribatzen du. Horretarako, udalerrian hiri-garapeneko eredia baldintzatzen duten oinarriko elementuak identifikatzen ditu, besteak beste, sistema orokorrak (espazio libreak, komunikazioak, ekipamenduak, azpiegiturak), portua, hiri-lurzoruak, lurzoru urbanizagarriak eta urbanizaezinak, bai eta bizitegi-kuantifikazio osoa ere.

Testuinguru horretan, guztira lau aukera aurkezten dira, 0 alternatiba, egungo lege-esparrua irudikatzen duena, eta beste hiru aukera, lehen aipatutako oinarriko elementuak konbinatzeko modu desberdinak direnak. Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioarekin osatzen dira, eta horretarako ez da alternatibarik proposatzen. 0 alternatiban eta gainerako alternatibetan lurzoru urbanizaezinaren beste kalifikazio bat proposatzen da, lurraldearen berezko ezaugarriak eta aplikatu beharreko lurralde-plan sektorialen erregulazioa kontuan hartuta.

Horrela, eta planteatutako alternatibek udalerrirako proposatutako garapen-eredua errotik aldatzen ez dutela kontuan hartuta, horietako bakoitzaren deskribapena 0 alternatiba izenekotik abiatuta egiten da (indarrean dauden Arau Subsidiarioak); hori oinarri hartuta eta udalerrriaren egitura orokorra eta organikoa osatzen duten alderdiei dagokienez, alternatiba bakoitzeko proposamen bereizleak deskribatzen dira.

- 0. alternatiba:

Indarreko arau subsidiarioek oraindik gauzatu gabeko bizitegi-garapenak aurreikusten dituzte udalerriko hiri-bilbeko hutsuneetan: II. motako zonetan. Arrabal (A.2.3. UE) San Ignazio 24-26, A.2.4. UE San Ignazio 16), III. mota. Zabalgunea (U.E.E.3.1. San Ignazio 21/2a, U.E.E.3.2 Conservas Ortiz) eta IV. mota. Herri berriak (U.E.N.P.P.1.1. Anbulategia, U.E.N.P.1.2. Kamiñazpi, U.E.N.P.1.3. Ibaiondo). Eskaintza 154 etxebizitzakoa da guztira.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez, indarrean dauden arau subsidiarioek Erreterria eremua hiri-berrantolaketatara plan berezi baten bidez garatzea proposatzen dute.

Espazio libreen sistema orokorra espazio libreetarako lau zonak osatzen dute, eta guztira 94.318 m²-ko azalera dute:

- o Lurzoru urbanizaezinean: EL-1 Arrigorri (5.528 m²), EL-3 Goimendia (73.886 m²) eta EL-4 Zaldubide (2.256 m²).
- o Hiri-lurzoruan: EL-2 Itsasaurre (12.648 m²).

Aparkaleku Sistema Orokorren sarea udalerriko egungo aparkalekuek osatzen dute: ASO-1 Kamiñazpi, ASO-2 Zaldupe, ASO-3 Astilleru eta ASO-4 Txorierreka. Gainera, 0 alternatiban, A.2.1. Kamiñalde eremuan aparkaleku berri bat egitea aurreikusi da.

Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra gaur egun udalerrian dauden erlijio-, irakaskuntza-, administrazio-, osasun-, ongizate-, gizarte-, jolas-, kultura- eta kirol-ekipamenduetarako elementu eta lurzoruak biltzen ditu.

Portu Sistema Orokorra Portu Agintaritzak –kasu honetan, Eusko Jaurlaritzak– garatzen duen jarduerari lotutako azalaren multzoari dagokio. Eremu hori berezia denez, Ondarroako portua antolatzeke plan berezi batek arautzen du. Plan berezi hori *Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2009ko otsailaren 29ko Aginduaren bidez onartu zen behin betiko, eta 2009/07/09an argitaratu zen BAOn.*

- 1. alternatiba:

1. alternatibak udalerrriaren garapena proposatzen du, oro har, hiri-perimetroa errespetatuz. Zaldubiden (S1) bizitegi-erabilera lurzoru urbanizagarriaren sektore berri bat proposatu du, 0 alternatibako espazio libreetarako erabiliko dena.

Gainerako bizitegi-garapenak Ondarroako hirigunean daude, hiri-lurzoruan. Bizitegi-eremu bat sortu da Artabiden (AR-9), eta Goikozini eremua (AR-8) birsailkatu da bizitegi-erabilera hartzeko. Era berean, garapen berriak planteatzen dira dauden hiri-hutsuneetan (AR-1 Anbulategia, AR-2 Kamiñazpi, AR-3 Ibaiondo, AR-4 San Ignazio 25-27, AR-5 San Ignazio 24bis, AR-6 San Ignazio 16, AR-7 Ortiz kontserbak). Guztira, 356 etxebizitza berri eskainiko dira.

Jarduera ekonomikoek dagokienez, Erreterriko sektoreak bere horretan jarraitzen du, baina mugaketa sektorearen hegoaldean aldatzen da, BI-633 errepedieraino bakarrik iritsita, errepediearen eta Artibai ibaiaren arteko lur-zerrenda deskalifikatuta.

Barazki-plaza lekuz aldatu da, eta espazio libreen sistema orokor berri gisa definitu da (EL-4 Berdura plaza) hiri-lurzoruan. Alternatibak espazio libreen 93.186 m²-ko azalera eusten dio, 0 alternatiban baino 1.132 m² gutxiago.

Alternatiba horrek beste bi aparkaleku berri sortzea planteatzen du, bata Zaldupeko ekipamendu-eremuan (AP-5) eta bestea lurrazpikoan (AP-6) Itsasaurre Gune Librearen azpian, baita Kamiñalden ere, Arau Subsidiarioetan proposatua eta oraindik garatu gabea.

Ekipamenduei dagokienez, alternatiba horrek udaletxea eta Kulturetxea Zeledonio Arriolako lursailera lekualdatzea proposatzen du, gaur egun erabiltzen ez den interes arkitektonikoko eraikin batera. Aldi berean, barazkien plazako merkatua gaur egun udalak okupatzen duen lursailera eta udaltzaingoaren bulegoetara lekualdatzea planteatzen da, eta, horrela, lehen aipatu den bezala, barazkien plaza espazio libreetara lekualdatu.

Gainera, Alli Berria lurzoru urbanizaezinean kanpin bat (CMP-1) sortzea proposatzen da Trantsizioko Landa Paisaia gisa kalifikatutako lurzoruan.

- 2. alternatiba:

2. alternatibak 1. alternatibak baino garapen handixeagoa dakar. Lurzoru urbanizagarria handitzea proposatzen du, mendebalderantz zein iparralderantz, hiru bizitegi-sektore berrirekin: S1 Kamiñazpi, S2 Artabide, S3 Alli Berria.

Zaldubideko 1. alternatibako lurzoru urbanizagarria kendu eta gainerako eremuak hiri-lurzoruan mantenduko dira. Alternatiba honetan 338 etxebizitza eskaintzen dira.

Alternatiba horrek Erretereria sektorearen azalera murrizten du gainerako alternatibekiko, eta artifizializatutako eta gaur egun eraikinek okupatutako lurzoruak soilik hartzen ditu.

1. alternatibako Espazio Librean Sistema Orokorra osatzen duten elementuak mantendu dira, eta eremu berri bat sortu da, EL-5 Santa Klara (2.051 m²), guztira 105.237 m²-ko azalera duena.

Hiru aparkaleku berri sortzeko proposamena gehitu da: bat Zaldupeko ekipamendu-eremuan (AP-5), beste bat altueran Zaldubiden (AP-6) eta hirugarrena udalerrriaren iparraldean, Artabide kaletik sarbidea duena eta portuko kotaraino jaisten dena (AP-7 Artabide).

Kirol-ekipamendurako erreserba bat proposatzen da: pilotaleku estali bat portu-eremuan, sarbidetik hurbilen dagoen eremuan.

- 3. alternatiba:

3. alternatibak 2. alternatibaren antzeko hazkunde-eredua islatzen du, Alli Berria izan ezik, kirol-ekipamendu gisa gordetzen baita bizitegi-erabilerarako erabili ordez.

Horrela, alternatiba horretan, bizitegi-hazkundera hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizaezin gisa proposatutako bi sektoretan kontzentratzen da Kamiñazpin (S1) eta Artabiden (S2). Bizitegi-eskaintza berria 377 etxebizitzakoa da.

Alternatiba horrek jarduera ekonomikoen sektorea proposatzen du Erretererian, gainerako alternatibetan baino hedadura handiagokoa. Eremuko lurzoru guztiak hartzen ditu, baita ur-ibilguen babesak ere (Goitierreka erreka eta Artibai ibaia).

3. alternatibak 2. alternatibaren proposamen berari eusten dio espazio libreei dagokienez. Aparkalekuei dagokienez, Zaldupen (AP-5) eta Artabiden (AP-6) bi gune berri sortzea proposatzen da.

Ekipamenduak 2. alternatiban bezala mantentzen dira, Goikoziniko Kultur Etxea Zeledonio Arriola ingurura lekualdatzea eta Goikozinin bizitegi-eremu handiagoa sortzea izan ezik. Alternatiba horretan, pilotaleku estaliaren kirol-ekipamenduaren erreserba Zaldubiden dago. Alli Berrian, esan bezala, kirol-erabilerarako beste erreserba bat planteatzen da.

Garapeneko alternatiba guztietan Zaldupe eta Kamiñazpi arteko oinezkoentzako zubi berria aurreikusten da.

- Lurzoru urbanizaezina:

Bai 0 alternatibarako, bai gainerako alternatibetarako, lurzoru urbanizaezinaren kategorizazio berria proposatzen da, antolamendu-kategoriak hauek izanik: Babes Berezi Zehatza, Babes Berezia, Hondartza, Azaleko Uren Babesa, Trantsizioko Landa Paisaia, Basogintza eta Ingurumenaren Hobekuntza.

Aurrerapenak gainjarritako baldintzen zerrenda bat hartzen du barne: Natura 2000 Sarea (Artibai itsasadarraren KBE ES2130011), uholde-arriskua, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, kutsadura akustikoa, ondarea, eremu higagarriak, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberak diren eremuak, Artibai ibaiaren hezegunea (Hezeguneen LAP), Interes Bereziako Eremuak eta bisoi europarraren hobetu beharreko tartekak.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020koaren helburu estrategikoak eta jarduketako ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak hartuko dira kontuan.

Zehazki, Plana zuzentzeko, garapen jasangarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzoria eta lurzoru naturala urbanizatzea ekidinez.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun indusitua saihestea irisgarritasuna garatuta, lurzoru-erabilerak eta mugikortasunak modu integratuan planifikatuz eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzoria jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitata eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Paisaia- eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera iraunkorra ere.
- h) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatea: ura, energia, lurzoria eta materialak.
- i) Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa sustatea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea apaltzeko neurriak eta aldaketara egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak gutxitzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuta.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen aldetik garrantzitsuak diren eremuak

HAPOren lurralde-eremua Ondarroako udalerrri osoa da, 4,29 km²-ko azalera eta 8.601 biztanle ditu. Udalerrria Lea-Artibai eskualdekoa da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekialdean dago, eta Artibai ibaiaren ibilguak baldintzatzen du hidrologikoki.

- Ondarroako sare hidrografikoa Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikokoa da, eta, zehazkiago, Artibai Unitate Hidrologikokoa. Artibai ibaia mendebaldetik ekialdera doa, herrigunea zeharkatzen du eta udalerrriaren ekialdeko muturrean itsasoratzen da. Udalerrriaren ibilgu nagusia da.

Udalerriaren barruan, Artibai ibaiaren ibaiadarrak Munaberreka, Elorrai, Allanda, Goitierreka, Iturralde eta Errekaundi dira. Udalerriaren iparraldeko muturretik igarotzen diren eta itsasoratzen diren beste ur-ibilgu batzuk Galtzuaran eta Arriaga dira.

- EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren (aurrerantzean, LPS) arabera, osagai hidraulikoa kontuan hartuta, Artibairen zatia, udalerrian sartzen denetik Kamiñazpi-Ibaiondo auzoraino, II. mailakoa da, 50 eta 100 km² arteko arro-azalera du, eta puntu horretatik aurrera III. mailakoa da, hau da, 100 eta 200 km² arteko arro-azalerarekin. Gainerako ur-ibilguak 00 mailakotzat jotzen dira, km² bat baino gutxiagoko arroak.
- Artibai ibaia Natura 2000 Sareko (KBE) Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2130011) gisa identifikatzen da. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da urriaren 16ko 215/2012 Dekretua, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen eta kontserbazio-neurriak onartzen dituen.
- EAEko korridore ekologikoen sareak interes bereziko ibai-tarte gisa identifikatzen du Artibai ibaia.
- Halaber, Artibai itsasadarra EAEko hezeguneen inbentarioan (A1B5 kodea) eta Hezeguneen LPSn (II. taldea) dago.
- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren Babestutako Eremuen Erregistroak (BEE) Artibaiko estuarioa, mantenu gaien ekarpenarekiko sentikorrek diren eremu gisa hartzen du, eta estuariora isurtzen den arroa, eremu sentikorrek hartzeko eremu gisa. Era berean, Arrigorri hondartzako bainu-eremua definitzen da. Bestalde, Artibai itsasadarrak udalerritik igarotzean dituen babes-figurak jasotzen ditu: urari lotutako Natura 2000 Sareko espazioa (Artibai ibaiaren KBE), hezeguneen estatuko inbentarioan sartutako hezegunea (Artibai itsasadarra) eta espezie mehatxatuentzako interes bereziko eremua (bisoi europarra).
- Ondarroako udalerria iparraldeko antiklinaleko lurpeko ur-masaren gainean dago. Artibai ibaiaren lautada alubiala, udalerriaren mendebaldean, Errenteria auzoa barne Ibaiondoraino, interes hidrogeologikoko leku edo zonen gainean dago. Era berean, Ondarroako hirigunearen zati handi bat, Goimendi auzoa eta Arrigorri ingurunea eremu mota horren barruan daude.
- Udalerrian ez dago onura publikoko mendirik, ez eta interes geologikoko lekurik ere.
- Itsasertzeko LPSak babes zorrotz eta berezi bateragarriko eremuak identifikatzen ditu, udalerriaren iparraldeko muturrean eta Arrigorri hondartzaren inguruan dauden itsaslabarrei dagozkienak, bai eta ekosistemak hobetzeko zenbait eremu ere.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera, balio estrategiko handiko lurzoruak oso eremu txikian daude Artibai ibaiaren eskuinaldean, Errenteria auzoaren parean.
- Intereseko landarediari dagokionez, udalerriaren iparraldeko muga 1230 Itsaslabarrek Batasunaren intereseko habitatak kartografiatzen dira, Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landarediarekin, eta 4090 Txilardi oromediterraneoar endemikoak, elorri-triskarekin. Artibaiko ibarrean Batasunaren intereseko zenbait habitat daude: 1130 Estuarioak, 1140 Lautada lohitsuak edo hareatsuak, itsasbeheran urez estalita ez daudenak, 1330 Atlantikoko larre gaziak (*Glauco-Puccinellietalia maritima*), 1420 Sastrakadi halofilo mediterranoarrak eta termoatlantikoak (*Sarcocornetea fruticosi*) eta 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*). Barreiatutako udalerriko hegaletan: 6210 Larre mesofiloak, *Brechypodium pinnatum* dutenak, 4030 Txilardi lehor europarrak, 6510 Altitude baxuko sega-belardi eskasak (*Alopercus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) eta 9340 *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak dituztenak. Nabarmenezkoa da azken bi horiek Artibai ibaiaren ertzean ere badaudela. Gainera, Artibai ibarrean, Artibai Ibaia KBEaren barruan, *Zostera noltii* espeziea leheneratzeko eremua nabarmentzen da; espezie hori Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan sartuta dago, galtzeko arriskuan kategorian.
- Artibai ibaiaren ibilgua, baita Munaberreka, Elorrai, Allanda, Goitierreka eta Iturralde ibaiadarrak ere, Bisoi Europarrentzako Interes Bereziko Eremu gisa katalogatuta daude, Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan galzorian dagoen espezie gisa katalogatuta. Ildo horretatik, *ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua* hartu behar dakontuan. Horren bidez, *Bisoi Europarrenean –Mustela lutreola (Linnaeus, 1761)– Kudeaketa Plana onetsi da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu*. Udalerriko gainerako ibai-sarea espeziea hobetzeko tartetzat hartzen da.
- Udalerriko azalerarik handiena, hirigunea barne, Lea-Artibai Kostako Sektorean dago, linea elektrikoetan hegazti-fauna talken eta elektrokuzioen aurka babesteko eremuan.
- Paisaiari dagokionez, udalerriaren zatirik handiena Ondarroako ikusmen-arroan dago, eta iparralderena Mendexako arroan, biak ere arruntak eta paisaia-balio oso txikikoak. Udalerriaren

ekialdean, Arrigorri hondartzaren inguruan, beste bi arrok bat egiten dute: Mutrikuk eta Galdonamendik. Udalerri barruan azalera txikia dute eta arruntak dira. Galdonamendi arroa da EAEko Paisaia Bikainen Katalogoan sartzen den udalerriko arro bakarra.

- Udalerrian, lurzorua kutsa dezaketan jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzati inbentarioan jasotako 25 kokaleku identifikatu dira guztira; industria-jarduerak, betelanak edo zaborteak dira.
- Ondarroako hiriguneak eta Artibai ibaiaren ertzetan dauden udalerriko hiri-garapen guztiek uholde-arriskua dute, eta 100 eta 500 urteko errepikatze-denborek eragiten diete nagusiki. Hala ere, 10 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskua duten eremuak ere badaude. Artibai ibaiaren estuarioa ES017-BIZ-ART-3 Ondarroa-Kosta (III. taldea) kostaldeko UAHEaren barruan dago.
- Oro har, udalerria ez da oso edo oso-oso kaltebera edo ez da nabarmen kaltebera akuiferoen kutsadurarekiko; batez besteko kalteberatasuna du hegoaldeko eremu txiki batzuetan, eta ez dago, inola ere, udal-mugartean kalteberatasun handiko eta oso handiko lurzorurik.
- Udalerri ia osoa higadura txiki-txikiko eta lurzoruaren galera onargarria duten eremuei dagokie; hala ere, hirigunearen inguruan muturreko higadura-prozesuak dituzten hainbat eremu daude.
- Hautemandako zarata-iturri nagusiak ibilgailuen trafikotik eta industrietatik datoz. Udalerriko zarata-sorgune nagusiak ibilgailuen trafikotik datoz, BI-633 eta BI-3438 errepideak eta industria batez ere. Bizkaiko errepideen zarata-mapa estrategikoen arabera (2018), udalerria zati bat errepide horien zortasun akustikoko eremuaren eraginpean dago. Udalerriak 2015eko apirilko Zarataren Mapa eta Ekintza Plana ditu, IMAE Ingurumen Institutuak landuak.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak.

Ingurune fisikoan ondorio esanguratsuak dituzten jarduketak kokatzeko eremu desegokitzen joko dira aurreko apartatuan jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Era berean, printzipioz, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko eta/edo hots-kutsadurak eragindako eremuetako hirigintza-garapen berriak.

HAPOn alternatibek planteatzen dituzten proposamenen arabera, garapenaren xede diren eremu batzuek uholde-arriskua dute. Nolanahi ere, Planak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du honako arau hauetan ezartzen diren mugekin: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa); eta Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoa berrikusteko araudiaren (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua) 40. artikulutik 42.era artekoak.

Halaber, eragin akustikoa duten eremuek, oro har, hots-kutsadurari buruzko araudia bete beharko dute, bai eta EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 13/2012 Dekretua ere. Etorkizunean ezin izango da hirigintza-garapenik egin kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru antropizatuak eta lurzoru kutsatuak.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen diren alderdi horiek–:

Natura-ondareari dagokionez:

- HAPOn Aurrerapenaren proposamena, lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari buruzkoa, oso laburra dela uste da, antolamendu-kategorien zerrenda eta planoetan duten irudikapen grafikoa soilik kontuan hartzen baitu. Ez da agertzen deskribapen ordenatu eta argirik, ez eta eremu bakoitzari lotutako erabileren erregulaziorik ere; gai horiek HAPOn ondorengo bertsioetan jasoko omen dira.

Ondo baloratzen da Itsasertzeko Lurralde Plan Sektorialean Babes Berezi Zehatzeko eta Babes Berezi Bateragarriko Eremuak sartzea. Hala ere, EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak Artibai itsasadarrerako ezartzen duen antolamendua ere onartu behar da, udal-plangintzarako loteslea baita.

- Gainera, Artibai ibaiaren KBE babes bereziko kategoria espezifiko batean sartzea gomendatzen da, espazioan aplikatu beharreko araudia berariaz adierazita.

- Udalerrian dauden baso-masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak (BIH) babes bereziko kategoria batean sartu behar dira, eta, horrela, kautelazko neurriak ezarri behar dira horiek babesteko, honako hauen arabera: 92/43/EEE Zuzentaraua (11. artikulua), Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea (46.3 artikulua), Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua (2.e artikulua) eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak-LAG- (II. eranskina. 1.a.2.d).

- 3 alternatibetan planteatzen diren hirigintza-garapenei dagokienez, positiboki baloratzen da Errenteriako hiri-lurzorua/lurzoru urbanizagarria birmugatzeko, BI-633 errepidearen eta Artibai itsasadarraren arteko lur-zerrenda desklasifikatuz.

- Bereziki kezkarriak dira Aurrerapeneko proposamenetako batzuk, Artibai ibaiaren KBEan izan dezaketen eraginagatik: S3 S3 Alli Berria (2. alternatibetan proposatua) eta S1 Kamiñazpi (2. eta 3. alternatibetan proposatua) bizitegi-garapenak, Errenteriako jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria (birmugatu arren, KBEan barneratzen dena) eta Zaldupe eta Kamiñazpi arteko oinezkoentzako zubia (Artibai ibaiaren bi ertzetan dauden kirol- eta eskola-ekipamenduak konektatzea du helburu).

Ondorioz, uste da ingurumen-azterketa estrategikoak behar bezala ebaluatu beharko dituela proposamen horiek KBEan dituzten ondorioak, kontuan hartuta zer habitat eta espezie kontserbatu behar diren eta zer araudi aplikatu behar den (urriaren 16ko 215/2012 Dekretuan eta martxoaren 17ko 34/2015 Dekretuan, lehen aipatutakoetan, jasota dago).

- Era berean, kezkarria da S2 Artabide bizitegi-garapena (2. eta 3. alternatibetan proposatua), izan ditzakeen lur-erazketa garrantzitsuengatik, paisaian duen eraginagatik (mendi-mazelan portuaren gainean oso agerian dago) eta zuhaitz-/zuhaixka-masa autoktono batean duen eraginagatik (hostozabal zuhaitz gazteen baso natural gisa kartografiatua). Horiek guztiak kontuan izanda, ez da gomendatzen eremu hori garatzea. Nolanahi ere, uste da ingurumen-azterketa estrategikoari dagokiola kasuan kasuko azterketa egitea.

- Ingurumen-azterketa estrategikoak planeamendu-alternatiba bakoitzaren egungo egoera, etorkizuneko egoera eta balizko eragina deskribatu beharko lituzke:

- Ur-ibilgu, erribera eta ibaiertz guztien gainean, ibai-lurraldearen babesa lortze aldera, hau da, dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo berreskuratzeko adinako hedadura eta jarraitutasuna duen espazio gisa ulertuta; egoera ekologiko ona betetzea; uholdeak modu naturalean ijetzea; ibai-paisaia hobetzea eta sendotzea, eta ibaiertzeko korridore jarraitua lortzea.

- Udalerriko eremu naturalen arteko loturari dagokionez, habitaten eta espezie basatien zatiketari aurre egiteko eta koherentzia ekologikoa areagotzeko, gomendagarria da tokiko eremuko konektibitate ekologikoko sare bat Babes Berezi edo baldintzatzaile gainjarri gisa kategorizatzea. Sare horrek lotura-intereseko paisaiako elementuak jasoko ditu, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerrokadura sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, putzuak, etab.) eta harrizko hormatxoak. Hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan ezarritakoarekin bat eginda.

Kultura-ondareari dagokionez:

- Ondarroako hirigune historikoaren monumentu-multzo izendatzeko proposatutako ondasun higiezin zerrendan honako eraikin hauek sartzeko gomendatzen da: 157. Iñaki Deuna etxea 10; 158. Iñaki Deuna

etxea 2; 159. Inaki Deuna etxea 4; 160. Inaki Deuna etxea 8; 187. Erribera etxea 13; 189. Erribera etxea 18-20; eta 190. Erribera etxea 16.

- Planaren hurrengo faseetan Kultura Ondarearen Zuzendaritzak definitutako eta espediente honetako kontsulten izapidearen esparruan emandako txostenaren 3. apartatuan jasotako irizpideak txertatzea. Apartatu horren izena "Kultura-ondareari buruzko oharrak eta esku hartzeko irizpideen arloko jarraibideak" da.

6. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Arau Subsidiarioetan ezarritakoak aldatzen ditu. Ingurumen-ebaluazio berriak jarduketa-proposamen berriek sortutako ondorio espezifikoak hartuko ditu oinarri. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko eraginak honako hauek izango dira soilik: Planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen direnen aldaketen ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko liratekeen ondorioak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da halaber Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea.
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterlana) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalen eta xeheen; honako hauek, zehazki:

6.1. Planaren deskribapena.

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da HAPOrekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Planaren elaborazioa egitean Ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide,

helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.

c. Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.

d. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zehaztuta zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuta.

e. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (erkidegokoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Gernika-Markinako eremu funtzionalaren lurralde plan partziala:
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena. Dekretu horretan, KBE ES2130011 Artibai ibaia izendatzen da. Bereziki, KBE izendapenarekin ezarritako kontserbazio-helburuak eta -neurriak adieraziko dira, Planean aplikatu eta/edo sartu beharrekoak badira.
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki urak har ditzakeen zonei lotutako zehaztapenak eta Babestutako Eremuen Erregistroa.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kudeatzeko plana.
- 1432/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 29koa, hegazti-fauna goi-tentsioko linea elektrikoaren talken eta elektrokuzioen aurka babesteko neurriak ezartzen dituena, eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindua. Horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehenetsuneko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira, argitaratzen.
- Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. eta 31.4. artikulua.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean hautatutako aukeraren bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Antolamendua aldatzen den eremu guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.

- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, ekarpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

Azterlanak HAPOaren helburu nagusien laburpen txiki bat jaso beharko du, eta era berean, xehetasun osoz deskribatu beharko ditu Planean txertatutako proposamen, aldaketa edo xehakapen berriekin lotutako ekintzak —aldaketa edota xehakapen horiek eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamendua oinarri hartuta bereiziko dira, betiere ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete—; horrez gain, eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak hartuko dira kontuan.

Ildo horretan, jarduera-eremuetarako proposamen zehatzen definizioa jaso beharko du IngAEk, eta zehaztu zein diren HAPOren aurrerapenean aurkeztzen diren proposamenetatik azkenean garatu direnak.

Era berean, IngAEen lurzoru urbanizaezinaren antolamendua sartu beharko da. Antolamendu-kategoriak (hala badagokio, landa-guneen mugaketa barne) eta gainjarritako baldintzatzaileak mugatu eta definitu beharko dira, bai eta horietako bakoitzean esleitutako erabilera-araubidea ere.

HAPOren aurrerapenean aurkeztutako proposamenei gehitu beharko zaie EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak Artibai itsasadarrerako ezartzen duen antolamendua. Artibai ibaiaren KBE babes bereziko kategorია espezifiko batean sartzea gomendatzen da, eremuan aplikatu beharreko araudia berariaz adierazita. Udalerrian dauden baso-masa autoktono nagusiak eta lehentasunezko Batasunaren intereseko habitatak (BIH) ere Babes Bereziko kategoría batean sartu behar dira. Gainera, iradokitzen da Babes Bereziko edo gainjarritako baldintzatzaile gisa kategorizatzea tokiko eremuko konektibitate ekologikoko sare bat, lotura-intereseko paisaiaren elementuak jasoko dituen, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerrokadura sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, istilak, etab.) eta harrizko hormatxoak; bat etorrira apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, xedatutakoarekin.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarri buruzko aurreikuspen bat egingo da. Zehazki, arreta berezia jarriko zaie hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo inguruneko eraldaketa nabarmenak eragin ditzaketen jarduerari, baita lurzorua kutsa dezaketen jarduerak nozitzen edo nozitu dituzten lurzoruetan eragina dutenei ere.

Bestalde, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako planak edo proiektuak identifikatu beharko ditu IngAEk, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzeko eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatutako dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan deskribatutako ekintzetarako zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta

jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketaren kokapena, pdf eta shape formatuetan.

6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 aukera edo esku ez hartzeko aukera ere hartuko da kontuan; kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

Ildo horretan, S2 Artabide bizitegi-garapenaren balizko inpaktuek (2. eta 3. alternatibetan proposatua) – lur-erazketei, paisaia-inpaktuari eta masa autoktonoetan izan dezakeen eraginari buruzkoak– ez dute hura garatzea gomendatzen.

Bestalde, ontzat jo dira Errenteriako hiri-lurzorua/lurzoru urbanizagarria birmugatzea jasotzen duten alternatibak, BI-633 errepidearen eta Artibai itsasadarraren arteko lur-zerrenda desklasifikatuz.

Era berean, udalerriko mugikortasun iraunkorreko alternatibak baloratu beharko dira, hautatutako alternatibak aparkalekuak sortzeko planak proposatutako beharra justifika dezan.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea.

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzen.

Azterketak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaiak islatzeko modukoak.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota. Lurzoru motari dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak daudela adieraziko da, hala nola ibai-ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko tokiak, korridore ekologikoak, etab. Egungo elementuek duten kontserbazio-egoerari, interes-mailari, kalteberatasunari, presioei eta egungo mehatxuei buruzko datuak emango dira, Plana gauzatzean areagotu baitaitezke.

Hasierako dokumentu estrategikoak Ondarroako udalerrriaren ezaugarri nagusien laburpen bat jasotzen du, zeina, oro har, egokitzat hartuko baita natura-ondarearen alderdiei dagokienez; hala ere, zenbait datu zehaztu beharko dira, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulthen izapidean jasotako artean.

Ildo horretan, Ondarroako lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea berrikusi beharko da, EAeko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak Artibai itsasadarrerako ezartzen duen antolamendua sartzeko. Ondorioz, Artibai ibaiaren KBE babes bereziko kategoria espezifikoko batean sartzeko gomendatzen da, eremuan aplikatu beharreko araudia berariaz adierazita. Babes Bereziko kategorian, halaber, baso-masa autoktono eta Batasunaren intereseko habitat guztiak jaso beharko dira. Era berean, Babes Berezi edo baldintzatzaile gainjarri gisa, tokiko konektibitate ekologikoko sare bat sartzeko gomendatzen da, lotura-intereseko paisaiako elementuak jasoko dituen, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerrokadura sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, putzuak, etab.) eta harrizko hormatxoak.

ES2130011 Artibai ibaia / Río Araxes KBEari dagokionez, haren kudeaketa-planean jasotako informazioa aztertuko da, eta, ahal den neurrian, informazio hori zabaldu egingo da eskuragarri dauden datu eguneratuenekin. Azterketak honako alderdi hauek xedatuko ditu:

- Eremua izendatzea eta babestea eragin duten balio eta elementu nagusiak deskribatuko dira, hala nola basaflora eta basafaunaren habitatak eta espezieak, lotura-funtzioa duten paisaiako elementuak, etab.
- Elementu horiek espazioan duten kontserbazio-egoerari eta jasaten dituzten presio eta mehatxu nagusien ebaluazioari buruzko laburpena erantsiko da.
- Gainera, gunearen kontserbazio-elementuei buruzko kontserbazio-arauen eta -helburuen laburpen bat jasoko da.
- Babesaren xede diren gunetan eta eremuetan kudeaketa-funtzioak betetzen dituzten administrazio-organoa eta -unitatea identifikatuko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik badagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes maila. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa ematen dizkion arau-xedapena ere aipatuko da. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

Alde horretatik, kultura-ondasunen babesa zehazteko, kontuan izango dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritako irizpideak, ebazpen honen 5. atalean jasotakoak.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labor-labor jasoko da zein diren planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina jasan dezaketen alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak hauteman beharko du zer eremur sor ditzakeen arazoak ingurumenaren ikuspegitik, eremu horiek proposamenen garapenarekin bateragarriak izan daitezen; horretarako, kontuan hartu beharko du ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela, besteak beste ebazpen honen 4. apartatuan aipatzen direnak.

Horren harira, ez da gomendagarria S2 Artabide bizitegi-garapena (2. eta 3. alternatibetan proposatua), izan ditzakeen lur-erazketa garrantzitsuengatik, paisaian duen eraginagatik (mendi-mazelan portuaren gainean oso agerian dago) eta zuhaitz-/zuhaixka-masa autoktono batean duen eraginagatik (hostozabal zuhaitz gazteen baso natural gisa kartografiatua). Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da ingurumen-azterketa estrategikoak aipatutako garapenaren balizko inpaktuak aztertzea.

Gainera, ingurumen-azterlan estrategikoak honakoa aztertu beharko du: S3 Alli Berria (2. alternatibetan proposatua) eta S1 Kamiñazpi (2. eta 3. alternatibetan proposatua) bizitegi-garapenek izan dezaketen eragina, Errenteriako jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria (birmugatu arren, KBEan barneratzen dena) eta Zaldupe eta Kamiñazpi arteko oinezkoentzako zubia (Artibai ibaia KBE eta Artibai ibaiko bi ertzetako kirol- eta eskola-ekipamenduak lotzea helburu duena).

Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko zehatza egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak eta ingurune hauskor edo kalteberak ebaluatu ahal izateko.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondoreak.

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek 6.2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterlanak bereziki jorratu beharko du jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan egindako aldatetekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren ondorio metatzaile eta sinergikoak.

Zehaztuko da, hala dagokionean, hautemandako ondorioak eraginik sortzen ote duen Natura 2000 Sareko lekuetan eta 6.2.1.b apartatuan jasotako beste gune batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuetan.

Halaber, hala badagokio, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, horren erreferentzia behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Aztertu beharko da zer eragin izan dezakeen uholde-arriskuak hirigintza-garapenean, eta behar bezala justifikatu beharko da indarrean dagoen plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterketa hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, haiek ere aurkeztu beharko dira gainerako dokumentazioarekin batera, ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko.
- ES2130011 Artibai KBEan zaindu beharreko elementuen gainean izandako ondorioen ezaugarriak deskribatu eta aztertuko dira. Balorazio hori egiteko, kontuan hartu beharko dira 6.2.1.b apartatuan zehaztutako kontserbazio-egoera, presioak eta mehatxuak eta kontserbazio-helburuak. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen ondorioak behar bezala identifikatzeko eta eraginaren neurriaren gainean egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

Zehazki, ingurumen-azterlan estrategikoak honakoa aztertu beharko du: S3 Alli Berria (2. alternatibaren proposatua) eta S1 Kamiñazpi (2. eta 3. alternatibetan proposatua) bizitegi-garapenek izan dezaketen eragina, Errenteriako jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria (birmugatu arren, KBEan barneratzen dena) eta Zaldupe eta Kamiñazpi arteko oinezkoentzako zubia (Artibai ibaia KBE eta Artibai ibaiko bi ertzetako kirol- eta eskola-ekipamenduak lotzea helburu duena).

- Garapen-eremuek ur-ibilgu, erribera eta ibaiertz guztien gainean izan dezaketen eragina aztertuko da, ibai-lurraldearen babesa lortze aldera, hau da, dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo berreskuratzeko adinako hedadura eta jarraitutasuna duen espazio gisa ulertuta; egoera ekologiko ona betetzeko; uholdeak modu naturalean ijazteko; ibai-paisaia hobetu eta sendotzeko, eta ibaiertzeko korridore jarraitua lortzeko.
- Azterlanean baloratu beharko da proposatutako jarduerak bat datozen tokiko konektibitate ekologikoa lortzeko helburuarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuarekin bat etorriz. Bereziki, kontuan hartuko da biodibertsitateko garrantzi handiena duten naturguneen arteko lotura (naturagune babestuak, ur-ibilguak, landaredi autoktonoa duten eremuak, etab.), lotura-intereseko paisaiaren elementuen bidez lotuko direnak, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerroak sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, putzuak, etab.) eta harrizko hormatxoak.
- HAPOk proposatutako antolamenduak Batasunaren intereseko habitatetan, espezie autoktonoen basoetan eta interes bereziko beste eremu batzuetan dituen ondorioak baloratuko dira.
- Kutsatuta egon daitezkeen lekuetan indusketek eta lur-mugimenduek eragingandako ondorioak aztertuko dira.
- Garapen batzuek orografiari eta maldei dagokienez izan ditzaketen arazoak aztertuko dira, eta, ondorioz, baita horiek egiteko behar diren lur-erazketa handiak ere. Ildo horretan, bereziki kezagarria da 2. eta 3. alternatibetan proposatutako Artabide S2 bizitegi-garapena.
- Azterlanak proposatutako garapen-eremu bakoitzaren paisaia-eragina baloratu beharko du.
- Etorkizunean hirigintza-garapenak eginez gero, aztertu beharko da ea betetzen diren aurreikusitako erabilerrakoz ezartzen diren kalitate akustikoko helburuak, eta, horretarako, indarreko araudian ezarritako metodologia erabiliko da, ebaluatzen den antolamendu-mota bakoitzerako egokituta (egiturazkoa edo xehea). Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera, etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten bada (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne) eta planak eremuaren antolamendu xehatua jasotzen

badu, hirigintza- eta ingurumen-izapideetarako dagokion eragin akustikoaren azterlana sartu beharko da, dekretu horren 37. artikuluan aipatzen den edukiarekin.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza balioztatu, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruaaren kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondorio edo efektu horien aurreikuspenean.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-ondorioak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak.

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den azterketaren 7.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoaren aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterketaren 7.3. apartatuan identifikatu diren eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi diren ondorioekin lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Berariazko neurriak, natura-ondarea eta lotura ekologikoa zaintzeko interes berezia duten udalerriko eremuak babestekoak.
- ES2130011 Artibai ibaia KBEan zaindu beharreko elementuak babesteko neurri zehatzak. Alde horretatik, xehetasunez azalduko dira ebazpen honetan aipatutako gunek eta espezie mehatxatuak babesteko arau eta planetan aurreikusitako babes-neurriak eta kontserbazio-jarduketak, betiere hautemandako balizko ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko aplikatu beharrekoak badira, hala badagokio. Neurri horien artean, obra-fasean ibaira istripuz isurketarik ez egiteko proposamenak zehaztuko dira.
- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatutako planetan ezarri diren irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).

- Ibai-ibilguen inguruan dauden garapen-eremuetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 Plan Hidrologikoan ezarritakoa bete beharko da, Ibai-ertzak eta ibai-korridorearen ekologia- eta paisaiadibertsitatea eta -funtzionaltasuna laguntzen duten elementuak aldatzea eta artifizializatzea saihestuz eta, ahal den guztietan, lehengoratzeko, berreskuratzea eta hobetzea sustatuz.
- Gainera, potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lursailak daudenez, eta ondorioz, lursail horiek etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena egiteari begira, Plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusitako kontuan hartuta.
- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak egindako “Lorategi eta berdegune jasagarriak diseinatzeko eskuliburua” argitalpenean jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar. Era berean, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena deuseztatze eta saihesteko.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko».

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen eboluzioa zaintzea, bai eta plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoaren eboluzioa ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek ebazpenaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, baita datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

6.6. Ingurumen-laburpena.

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ebazpenaren 6.1.1. apartatuan ingurumena babesteko deskribatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta/edo konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Izapideak: informazio publikoa eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen duten ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerranda hau hartuko da kontuan:

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza.
- URA-Uraren Euskal Agentzia
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kultura eta Kirol Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kostako eta Itsasoko Zuzendaritza Nagusia. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
- Aisialdiko Zuzendaritza Nagusia "EGUZKIZALEAK".
- Ekologistak Martxan Bizkaia Elkarte.

7. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio

ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/tramitacion-del-procedimiento-de-evaluacion-ambiental-estrategico/web01-a2inginp/es/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/es_def/adjuntos/GUIA-presentacion-documentacion.pdf

Bigarrena.- - Ebazpen hau Ondarroako Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2021eko maiatzaren 3a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

JAVIER AGIRRE ORCAJO